

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Udal arautegi organikoaren aldaketa behin betiko onestea

2019ko uztailaren 3an egindako osoko bilkura berezian, hasiera batean onetsi zen Aguraingo Udalaren udal arautegi organikoaren aldaketa; erreklamazio edo iradokizunik ez denez aurkeztu, behin betiko onetsitza jo zen 2019ko irailaren 7an. Hori dela eta, ALHAOn argitaratzen da indarrean sar dadin, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70-2 artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

Udal Arautegi Organikoa

1. artikulua

Udal Euskalduntzearen Barne Planean jasoko dira udal organo guztiek euskara erabiltzeko bete behar dituzten gutxieneko guztiak; baita beharrezkoak diren tresna eta baliabide guztiak ere udal organo guztien lan hizkuntza euskara izan dadin pixkanaka.

2. artikulua

Toki erakundeek beren buruak antolatzeko gaitasuna dutela xedatzen du Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 2. artikuluan. Gaitasun hori oinarri eta hura aitortuta, Aguraingo Udalak bere udal arautegi organikoa eratzen duen erabaki hau hartzen du.

3. artikulua

Barne arautegi honen arauak tokiko gobernu batzarrean, osoko bilkuretan, informazio batzordeetan eta legeak direla-eta eratutako batzorde berezietan aplikatuko dira.

I. TITULUA UDAL ANTOLAMENDUA

4. artikulua

Indarreko hauteskunde legeek ezartzen dutenaren arabera hautaturiko alkateak eta zinegotziek osatzen duten udalari dagokio udal gobernu eta administrazioa.

5. artikulua

1. Organo hauen bidez gauzatuko ditu udalak bere eskumenak:

A. Hauexek dute erabakimena:

a) Alkateak.

b) Tokiko gobernu batzarrak.

c) Zinegotzi ordezkariak.

D) Alkateordeak, alkatearen ordezkariak eta ezarritako hurrenkeran.

e) Udalbatzak.

B. Hauexek dute azterlanak, txostenak eta proposamenak egiteko ahalmena:

a) Informazio batzordeak.

b) Batzordeetako lehendakariak eta ordezkariak.

2. Udalak erakunde eta sozietate hauetan parte hartuko du:

Kide anitzeko organoak:

- Aguraingo Kuadrilla.
- Lur Lautada XXI, SA.
- Aniturri institutuko eskola kontseilua.
- Pedro Lope de Larrea ikastolako eskola kontseilua.
- Lautada ikastolako eskola kontseilua.
- Haur eskolen partzuergoko eskola kontseilua.
- Entzia eta Iturrietako partzuergoak.
- Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL).
- URBIDE Arabako Ur Patzuergoa.
- LGE - Landa Garapenerako Elkarte.
- Adinekoen egoitzaren batzordea.
- Euskalfondoa.
- Kulturako sektore kontseilua.

Parte hartzeko beste batzorde batzuk:

- Gizarte ekintzako batzordea.
- Euskarako batzorde berezia.

Baita udalbatzak erabakitzen duenetan ere.

I. KAPITULUA

ALKATEA ETA ALKATEORDEAK

6. artikulua

Alkateak alkateordeak izendatu ahalko ditu.

7. artikulua

Alkateordeak jardun beharko dira -alkateorde direnez- alkatearen orde, eta haren eginkizun guztiak bete beharko dituzte, zein hurrenkeratan izendatu diren, hura ez badago, gaixorik badago edo bere eskumenak gauzatzeko eragozpenik badu.

8. artikulua

Alkatea da udalbatzaren eta batzorde guztien lehendakaria, eta lege testuek egozten dizkionten eskumen guztiak ditu, salbu eta eskuordetzan ematen dituenak.

9. artikulua

Azkeneko ohiko osoko bilkura egin ondoren harturiko ebazpen guztien berri emango dio alkateak udalbatzari, udal administrazioan egiten ari diren lanaren berri izan dezaten zinegotziek, eta gobernu organoa kontrolatzeko eta fiskalizatzeko modua eduki.

10. artikulua

1. Alkateak bere eskumenak eskuordetzan eman ahalko ditu, salbu eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.3. eta 71. artikuluetan xedatzen dituenak.

2. Alkateak tokiko gobernu batzarrari eta zinegotziei eman diezaieke zenbait eskumen gauzatzeko eskuordetza, zerbitzu edo eginkizun zehatzetarako. Arlo, zerbitzu edo gai zehatz bati buruzkoak izango dira eskuordetza orokorrak zein zehatzak, eta zerbitzu horiek zuzentzeko eskumenak emateaz gain, haiek modu orokorrean kudeatzeko eskumena ere eman ditzakete; baita administrazio ekintzen bidez hirugarren pertsonentzat diren ebazpenak egiteko gaitasuna ere.

II. KAPITULUA

TOKIKO GOBERNU BATZARRA

11. artikulua

Tokiko gobernu batzarra alkateak eta hark izendatutako hiru zinegotzik osatuko dute. Tokiko gobernu batzarrari atxikitako zinegotziak ere egon daitezke, baita ezer eskuordetu ez zaien zinegotziak ere, zeinek ahotsa bai baina botorik ez duten izango.

12. artikulua

Tokiko gobernu batzarrak eskuduntza hauek izango ditu:

- * Alkateari etengabe laguntza ematea.
- * Alkateak eskuordetutako eskuduntzez baliatzea.
- * Udalbatzak eskuordetutako eskuduntzez baliatzea.

13. artikulua

Tokiko gobernu batzarrak bere kideak izendatu eta hurrengo hamar egunetan egingo du batzarra eratzeako bilkura.

14. artikulua

Tokiko gobernu batzarrak aste guztietan egingo ditu ohiko bilkurak, opor garaian izan ezik (Aste Santua, abuztua, urriko jaiak eta Gabonak).

15. artikulua

Alkateak tokiko gobernu batzarrerako deia egin ahalko du, kideen iritzia jakin nahi duenean edo haien laguntza behar duenean, eman beharreko ebazpenak eman baino lehen.

Hausnartze bilkuretan tokiko gobernu batzarrak ez du erabakirik hartuko; irizpenak egingo ditu.

16. artikulua

Tokiko gobernu batzarraren deialdiak hogeita lau ordu lehenago behintzat egin behar dira, salbu eta presazko apartekoak, deialdia presazkoa dela kideen gehiengoak adierazi behar duelarik.

17. artikulua

Tokiko gobernu batzarrak ez dira egingo jendaurrean, eta balioz eratzeako batzarreko kideen gehiengo osoa bertaratu beharko da. Quorumik ez badago, bigarren deialdian eratuko dira hamabost minutu geroago, nahikoa izango delarik batzarreko kideen herena bertaratzea, eta inola ere ez hiru lagun baino gutxiago.

18. artikulua

Alkateak zuzendu eta antolatuko ditu eztabaidak tokiko gobernu batzarrean.

19. artikulua

Tokiko gobernu batzarrak ebazpenak ematen dituenean udalbatzak eskuordeturiko eskuduntzak oinarri, beharrezkoa izango da lehenago kasuan kasuko informazio batzordearen txostena edukitzea, presazko kasuetan izan ezik.

III. KAPITULUA

UDALBATZA

20. artikulua

Zinegotzi guztiek osatzen dute udalbatza, eta alkatea da lehendakaria.

21. artikulua

Hauteskundeei buruzko legeek xedatutakoarekin bat etorritik eratu ondoren, lege testuek egotzitako eskumenak dagozkio udalbatzari, eskuordetzan eman ez baditu.

IV. KAPITULUA

INFORMAZIO BATZORDEAK

22. artikulua

Informazio batzordeak, zeinak udalbatzako kideek osatzen baitituzte, ebazpenetarako eskumenik ez duten organoak dira, eta udalbatzaren edo tokiko gobernu batzarraren erabakipean –azken horrek udalbatzak eskuordeturiko eskumenen bidez ebazten duenean– jarriko diren aztergaiak edo alkatearen eta zinegotzi eskuordeen eskumenekoak direnak –haiek ondo baderitzone- aztertu zein horietaz aholkua ematea dute eginkizun.

23. artikulua

1. Aginduzkoak dira informazio batzordeen irizpenak, baina ez lotesleak.

2. Presarik badago, kasuan kasuko informazio batzordearen irizpenik izan ez duten gaiei buruz erabakiak hartu ahal izango ditu udalbatzak, baina halakoetan, informazio batzordeari jakinarazi beharko zaio zer erabaki hartu den haren lehenengo bilkuran. Udalbatzaren hurrengo osoko bilkurako gai zerrendan sartu beharko da aztergaia, informazio batzordeko edozein kidek hala eskatuta, presakotzat jotzearen gainean eztabaida dezan hark, bere kontrol eta ikuskapen eskumenak gauzatuz.

24. artikulua

Informazio batzordeak eta horien osaera udalbatzaren erabakiz onetsiko da.

II. TITULUA

FUNTZIONAMENDU ARAUBIDEA

I. KAPITULUA

UDALBATZAREN JARDUNA

25. artikulua

1. Aguraingo udalbatzak udaletxeko areto bilkuran egingo ditu ohiko bilkurak hil bakoitzeko azken osteguneko 19:00etan. Salbu eta opor garaian (Aste Santua, abuztua eta Eguberriak) edo ostegun hori jaieguna balitz; azken kasu horretan udalbatza aste bereko asteartean egingo litzateke.

Alderdi politikoetako bozeramaileek eskatuta alkateak, arrazoi justifikaturen bat badago, ohiko osoko bilkuren eguna eta ordua aurrera edo atzera ditzake, nahiz eta jarritako egun berria ez izan hil berekoa. Hala ere, bilkura ohiko osoko bilkura izaten jarraituko du eta udal iragarki taulan iragarriko da.

2. Bilkura bereziak ere egingo ditu, haietarako deia egiten badu alkate-lehendakariak bere kabuz zein udalbatzako kideen legeko kopuruaren laurdenak hala eskatuta. Idatziz egin beharko da eskaera, dena delako aztergaia arrazoituta eta eskatzaileak izenpetuta.

3. Udalbatzako eta formalki eraturiko edozein talde politikok eskatzen badu bilkura berezi-rako deia, haiek eskaera egin eta hamabost egun balioduneko epearen barruan egin beharko da hura, eta ezin izango da sartu aztergaia ohiko osoko bilkura bateko gai zerrendan, ez eta aztergai bat baino gehiago jasotzen duen beste osoko bilkura berezi batean ere, horretarako berariazko baimenik ematen ez badute behintzat deialdirako eskatzaileek.

4. Aztertu beharreko gaiaren edo gaien presak ez duenean uzten bilkura berezirako deirik egi-ten apirilaren 2ko 7/1985 Legeak xedatutako gutxieneko aurrerapenarekin –bi egun baliodun- egi-ten dira presako bilkura bereziak, alkate edo lehendakariak horietarako deia eginda. Halakoetan, gai zerrendako lehenengo puntuan sartu behar da udalbatzak aztergaia presakotzat jotzeko egin duen proposamena. Udalbatzak ez badu presakotzat jotzen hura, amaitu egingo da osoko bilkura.

5. Gutxienez bi egun baliodun lehenago egingo da udalbatzaren ohiko osoko bilkuretarako deia.

6. Bi egun baliodun lehenago eman beharko zaie zinegotziei deialdiaren, gai zerrendaren eta akten zirriborroen jakinarazpena, beren helbidean edo jakinarazpenak jasotzeko adierazi duten lekuan. Eta, eskatzen badute eta horretarako baimena ematen badute, bide elektronikoak erabiliz egin ahal izango da.

7. Edozein talde politikok sartu ahal izango ditu aztergaiak gai zerrendan, alkateari jakinarazi ondoren.

8. Kasuan kasuko informazio batzordearen alde aurreko irizpena, txostena zein aholkua izan duten aztergaiak baino ezin dira sartu gai zerrendan.

9. Kasuan kasuko informazio batzordearen alde aurreko txostena izan ez duten aztergaiak sar ditzake alkateak –bere kabuz zein bozeramaileren batek hala proposatuta- gai zerrendan, behar bezala arrazoitutako zioengatik, baina halakoetan ezin izango da aztergai horien gaineko erabakirik hartu udalbatzak ez badu berresten haiek gai zerrendan sartzea.

10. Gai zerrendan sartutako gaien dokumentazio osoa udalbatzako kideen eskura egon behar da deialdiko lehenengo egunetik udalaren idazkaritzan, eztabaidarako oinarri izango baita, eta hala badagokio, baita bozketarako ere. Hortaz, udalbatzako edozein kidek aztertu ahal izango du; baita haren kopia egin ere.

11. Osoko bilkura balioz eratzeko, udalbatzako kideen legeko kopuruaren herena berta-ratu behar da. Quorum horri eutsi beharko zaio bilkura osoan. Nolanahi ere, beharrezkoa da udalbatzako lehendakaria eta idazkaria bertaratzea, edo haiek legez ordeztan dituztenak.

12.

1. Osoko bilkurak jendaurrekoak dira. Idazkaritza orokorrak –eta bilkura egin baino bi egun baliodun lehenago gutxienez- bilkura egongo dela jakinaraziko die herritarrei, tokiko ohiko informazio organoen bidez. Halaber, behar diren azpiegiturak gaituko dira osoko bilkuren ja-rraipena egiteko.

2. Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 72. artikuluan jasotako elkarte edo erakunderen batek zerbait azaldu nahi badio udalbatzari gai zerrendako aztergairaren baten inguruan, baldin eta interesdun bezala parte hartu badu haren administrazio izapidetzean, bilkura hasi aurretik eskatu beharko dio baimena alkateari. Hark baimena eman ondoren eta ordezkari bakar baten bidez, azaldu beharrekoak azalduko ditu, alkateak emandako denboran, udalbatzak gai zerrendako proposa-menaren gainean eztabaidatu eta bozketa egin baino lehen.

3. Osoko bilkura bukatu ondoren, alkateak txanda eman diezaieke bertaratutakoei udal interesekoak diren gai jakin batzuei buruz eskaerak eta galderak egin ditzaten.

Alkateari dagokio txandak eman, antolatu eta kentzea.

4. Edozein herritarren eskura egongo dira aktak eta gai zerrenda, halakorik eskatuz gero.

13.

a). Bilkura bakoitzaren akta egingo da, eta korporazioko idazkariak sinatuko du. Bilkuraren datu hauek jaso beharko ditu batez ere:

- Eguna, hila eta urtea.
- Noiz hasi eta bukatu den.
- Zer kide bertaratu den.
- Zer gai aztertu den.
- Zer erabaki hartu den.
- Zer parte hartze egon den –labur-, eta zer bozkatu den, hala badagokio.

b). Bilkura grabatzeko erabili diren zintak deuseztatu egingo dira behin akta onartu ondoren.

III. KAPITULUA

MOZIOAK

26. artikulua

1. Mozio bat gai zerrendan sartu ahal izateko, talderen bateko bozeramaileak egin behar du horretarako eskaera, eta bilkura egin baino hiru egun baliodun lehenago aurkeztu behar du hura.

2. Herriko edozein organismo edo erakundek zein edozein auzotarrek aurkeztu ahal izango ditu mozioak udalbatzaren gai zerrendan.

3. Mozioak zer dioen jakitea: mozioa jarri dutenek korporazioko kide guztiei jakinarazi behar diete zer dioen mozioak, bilkura egin baino bi egun baliodun lehenago gutxienez; aldiz, presako osoko bilkura berezietan, deialdia egiten denean.

4. Ordezko moziorik badago, osoko bilkura egin baino egun baliodun bat lehenago, gutxienez, eman behar zaie haren berri udaleko talde politiko guztiei.

5. Mozioaren gaineko erabakia: mozioa oso-osorik –edo puntuz puntu- bozkatuko da, mozio jartzaileek onartu ondoren. Lehenengo ordezkko mozioa bozkatuko da, halakorik balego.

IV. KAPITULUA

ERABAKIAK HARTZEA

27. artikulua

Udalbatzak bertaratutako kideen gehiengo soilaz hartzen ditu erabakiak, arau orokor moduan.

28. artikulua

1. Bozketa hasi aurretik alkateak argi eta hitz gutxitan azalduko ditu bozketa egiteko baldintzak eta botoa emateko modua.

2. Ohiko bozketa bukatu ondoren, lehendakariak erabakitakoa azalduko du.

3. Erabakia hartutakoan, eztabaidan parte hartu ez duten edo eztabaidaren ostean beren botoa aldatu duten taldeek botoa azaltzeko txanda eskatu ahalko diote lehendakariari. Alkateari dagokio txandak eman, antolatu eta kentzea.

29. artikulua

Dena delako erabakiaren aurka botoa eman duten korporazioko kideak aktiboki legitimatuta egongo dira balia daitezkeen akzio judizialak eta administratiboak baliatzeko.

Aurreko paragrafoan jasoriko jarduerak eragindako gastu eta kostuak udalbatzak ordainduko ditu -baldin eta osorik edo partez baiesten badira-, epaileak kostuen gaineko berariazko epairik jaso ez arren azken ebazpenean.

30. artikulua

1. Udalaren bilkuretako esku-hartzeen arauak:

- Jorratu beharreko gaiaren berri ematen da.
- Bozketa egiten da.
- Botoaren azalpena -gehieneko denbora bi minutu talde bakoitzeko.

2. Eskerak eta galderak: (UAOaren 97. artikulua)

- Definizioa:

Eskaera udal gobernu organoetakoren bati zuzendutako jardura proposamena da. Osoko bilkuran egindako eskaerak eztabaidatu egin ahalko dira, baina inola ere bozkatu.

Udalbatzako kide guztiek edo udal taldeek (bozeramaileen bidez) planteatu ahal dituzte eskaerak.

Eskaerak ahoz edo idatziz egin ahalko dira eta orokorrean hurrengo bileran eztabaidatuko dira. Hala ere, eskaerak egin diren bileran bertan ere eztabaidatu ahalko dira, alkateak edo lehendakariak egoki irizten badio.

Galdera osoko bilkuran gobernu organoei planteatzen zaien edozein gai da. Udalbatzako kide guztiek edo udal taldeek (bozeramaileen bidez) planteatu ahal dituzte eskaerak.

3. Arauak.

- Alkateak aldeztu aurretik baimena emanda bakarrik hitz egin daiteke.
- Talde bakoitzak lehenengo txanda bat izango du eskaera eta galderetarako. Honek, gehienez ere, 10 minutu iraungo du. Esku-hartze guztiek gehieneko iraupen berdina izan dezaten begiratu da.
- Geroago, alusioetarako txanda bat izan daiteke, talderen batek hala eskatzekotan. Gehienez ere 2 minutu iraungo du. Laburra izango da.
- Talderen batek eskatuz gero, hitz egiteko azkeneko txanda emango da. Honek ez du 3 minutu baino gehiago joko.
- Osoko bilkuran zehar ahoz planteatutako galderak orokorrean hartzaileak erantzungo ditu, hurrengo bileran. Hala ere, unean bertan ere erantzun ahalko dira.
- Idatziz egindako galderak hartzaileak erantzungo ditu hurrengo bileran. Hala ere, unean bertan ere erantzun ahalko dira.
- Hirurogeita hamabi ordu aurretik idatziz egiten diren galderak bileran bertan erantzungo dira, eta, behar bezala arrazoitutako kausen ondorioz, hurrengoan.
- Ez da onartuko esku-hartzerik, ez bada alkatearena ohartarazteko edo aztertzen ari den gaiari lotzea eskatzeko.
- Alkateak udalbatzako edozein kide ohartarazi ahalko du, baldin eta hark: Begirunearen kontrako hitzak esan edo kontzeptuak adierazten baditu.
- Bilkura eteten badu edo, beste edozein modutan, ordena nahasten badu.
- Hizpidea eman gabe edo hizpidea kendu eta gero hitz egiten saiatzen bada.

— Bilkura berean hiru ohartarazpen eginez gero, bigarrenean hirugarren ohartarazpenaren ondorioei buruz abisatuta, aretotik irteteko eskatu ahal izango zaio, kanporatzea gauzatzeko egokitzen jotzen diren neurriak hartuz.

— Alkateari dagokio txandak eman, antolatu eta kentzea.

V. KAPITULUA

INFORMAZIO BATZORDEEN JARDUNA

31. artikulua

Informazio batzordeek beren bilkuren araubidea ezarriko dute lehenengo bileran, eta indarrean iraungo du aldatzeko erabakirik hartzen ez den bitartean. Edonola ere, bilera berezietarako deiak egin daitezke, baldin eta aztertu beharreko gaiak garrantzitsuak edo presakoak direla irizten badio lehendakariak.

32. artikulua

Alkatea edo hark eskuordetzen duen zinegotziak izango dira informazio batzordeen lehendakariak, batzordeak berak hala proposatuta batzorde barruko hautaketa egin ondoren.

33. artikulua

1. Udalbatzan ordezkariak duten talde politikoen proportzionaltasunera egokituta egongo da eratuta batzorde bakoitza, eta modu formalean eratuta dagoen talde bakoitzeko kide bat behintzat egongo dela bermatuko da.

2. Edozein zinegotzi joan daiteke informazio batzordeen bilkuretara, kide izan ez arren; halakoetan, hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez botoa ematekoa.

— Batzordeko kideen gehiengo osoa –berdin dio titularrak zein ordezekoak diren– bertaratu behar da bilkurak balioz egiteko lehenengo deialdian; aldiz, gutxienez hiru kide egon behar dira bigarren deialdian, ordubete geroago.

— Lehendakariak zuzendu eta antolatzen ditu batzordeko eztabaidak, egokien irizten dion eran eta osoko bilkuretako eztabaidak arautzen dituzten printzipio orokorrak errespetatuz.

— Irizpenak bertaratutako gehiengo soilaz onetsiko dira beti, eta berdinketarik egonez gero, lehendakariaren kalitate botoak erabakiko du.

34. artikulua

Udaleko idazkaria informazio batzorde guztietako berezko idazkaria da; hala ere, udal langilean, administrarien edo antzekoen esku utz ditzake bere karguaren eginkizunak.

35. artikulua

Informazio batzordeetan lehendakari eta idazkari ari direnak egon beharko dira bilkuretan, bilkurok irauten duen denbora guztian. Lehendakaria ez badago, udal talde politiko berdineko beste kideren bat jardungo da haren ordezkari.

36. artikulua

Aztergaietan interesa duten auzotarrak joan ahalko dira informazio batzordeen bilkuretara, eta eztabaidetan parte hartu ahal izango dute.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak honako hau xedatzen du 4. artikuluan:

1. Administrazio prozeduran interesdun dira:

A) Prozedurari hasiera eman diotenak, norbanakoen nahiz taldeen eskubide edo bidezko interesen titular modura.

B) Prozeduran har daitezkeen erabakiek uki ditzaketen eskubideak dituztenak, nahiz eta beraiek hasiera eman ez prozedurari.

C) Ebazpenak uki ditzakeen norbanakoen nahiz taldeen bidezko interesak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.

2. Ekonomiaren eta gizartearen interesen ordezkari diren elkarte eta antolakundeak bidezko talde interesen titularrak izango dira legeak aitortutako moduan.

3. Interesdun izatea harreman juridiko eskualdagarriren baten ondorioz sortua bada, eskubideduna izango da ondorengo interesduna, prozedura edozein urratsetan dagoela ere.

Toki Araubidearen Oinarrien Legeak 69. artikuluan ezartzen duenez, toki korporazioek ahalik eta informaziorik zabalena emango dute beren jardueri buruz eta herriko kontuetan herritar guztien parte hartzea bultzatuko dute; edonola ere, ezartzen du parte hartze horrek ezingo ditzutela inolaz ere gutxietsi lege bidez araututako ordezkaritza organoei dagozkien erabakitzeo ahalmenak. Dena den, eskubide hori bat etorri behar da Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregulamenduan (EB) xedatutakoarekin.

37. artikulua

Batzorde batek ere ezin izango du eztabaidatu beste batzorde batzuen eskumenekoak diren gaiak buruz. Edonola ere, informazio batzorde batekin edo gehiagorekin bilerak egiteko deiak egin daitezke, gai komunak tratatzeko. Halakoetan, alkateak izendatutako zinegotzia jardungo da lehendakari.

38. artikulua

1. Batzorde bakoitzeko lehendakariari dagokio gai zerrenda taxutzea eta deialdia egitea. Horrez gain,

- Informazio batzordearen buru izatea eta eztabaidak zuzentzea.
- Informazio batzordearen eta udalbatzarraren gai zerrendan aztergaiak proposatzea.

2. Bilkura baino bi egun balioudun lehenago behintzat egin beharko da hartarako deialdia, eta batzordeko kideei bidaltzeaz gain, herritarren organismo eta erakundeei ere –hala eskatzen badute– bidaliko zaie.

- Gai zerrendan edozein aztergai sartzea eskatu ahalko dute zinegotziek.

39. artikulua

Zeinahi informazio batzordeko lehendakariak deia egin ahalko du udalerriko leku desberdinetan dauden eta udalarenak diren lokaletan bilerak egiteko, auzo jakin bateko gai interesgarriak buruz hitz egin edo udal jardunaren berri eman nahian.

40. artikulua

Informazio batzordeetan ezin izango da gai zerrendan aldezturik sartu ez diren gaiak buruz jardun, salbu eta batzordeak presakotzat jotzen baditu.

41. artikulua

Batzordeen txosten edo irizpenek ezin dute inola ere erabakirik eragin, gaiak aztertu eta prestatzeko baino ez baitute balio.

42. artikulua

Betaraturako kide titularren botoen gehiengoaz egingo dira irizpenak eta txostenak, eta bilkuraren lehendakari jardun denak eta idazkari jardun denak sinatuko dituzte aktak.

Kideren bat irizpenarekin bat ez badator, berak emandako kontrako botoa aktan ager dadila eskatu ahalko du.

43. artikulua

1. Informazio batzordeek egiten duten bilkura bakoitzaren akta egingo da, idazkariak sinatuko du, eta batez ere hauexek jasoko dira: bertaratu diren zinegotzien izenak, zer gairi buruz hitz egin den edo zer irizpen eman den, baita parte hartzeen laburpen bat ere interesdunek hala eskatzen badute formalki.

— Zinegotzi guztiei banatzeaz gain, herriko organismo eta erakundeei ere –hartarako eskaera egiten badute– banatuko zaie informazio batzordeen akta.

44. artikulua

Informazio batzorde bakoitzeko idazkariari dagokio gai zerrendako gaiak prestatzea, eta batzordeak ematen dituen irizpenak idaztea; baita batzordeei bidaltzen zaizkien espedienteak kontrolatzea eta zaintzea, eta irizpenak berehala izapidetzea ere.

45. artikulua

Ondoz ondoko zenbakiak jarrita artxibatuko dira bilkura bakoitzean egindako aktak.

VI. KAPITULUA**ZINEGOTZIAK****46. artikulua**

1. Zinegotzi guztiek dute eskubidea eskatzeko udaleko edozein saili beren ustez egokiak diren informazioak eta espedienteak.

2. Zinegotzi guztiek dute eskubidea alkatearen eta haren zinegotzi eskuordeen dekretuen liburueta sartzeko, informazioa jaso dezaten.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Herritarren parte hartzea behar bezala xedatuta dago indarreko legedian: nola Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean, hala Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/12016 Legean.

Edonola ere, kontuan izanda zein garrantzitsua den jendeak parte har dezala udalerriaren nondik norakoetan, udalbatza honek konpromiso irmoa hartu du herritarren parte harteari buruzko berariazko arautegi bat idatzi eta ondoren indarrean jartzeko.

AZKEN XEDAPENA

Arautegi organiko hau aldatu egin ahal izango da talde politikoren batek hala eskatuta, eta horretarako udalbatzaren legezko kideen gehiengo osoa beharko da.

Edonola ere, nahitaez berrikusi beharko da, udalbatza honen agintaldia bukatu eta hurrengo udal agintaldia hasterakoan.

Arautegi organiko honek xedatzen ez duen guztirako azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegiaren xedapenak aplikatuko dira.

Agurain, 2019ko irailaren 19a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES